



2019ko MAIATZA

184

txi kitto!



**"IPURTERRE"
LEHIAKETAN
kontu kontari**



Euskara Elkarte

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartea.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidier Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidier Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Ainhoa Luz

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



XXV. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXV. edizioa antolatu berri du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurten, 1.000 ipuin eta gutun inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurten ere, txalotzeko moduko lana. Beraz, irabazleei zoriontzear gainera, parte hartu duzuen guztioi ere gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatu, Eibarren harrobi ederra daukagu-eta. Urteroko moduan, maiatzeko Txikitto!-ren alea ia osorik eskainiko diogu Ipurterrerri. Bertan dituzue aurtengo ipuin irabazleak, zabaldu orriak eta gozatu!



LH 1-2

OIHENART AGIRRE FERREIRA (La Salle Isasi ikastetxea)

TXORIA ETA ZEZENA

Egun batean,txori batek zezen talde bat ikusi zuen. Gero, adar batean igo eta esan zuen:
-Aizue!! Hemendik irten behar duzue, arriskuan zaudete!!!



-Arriskuan? Hemengo basoko animalia guztiak batera ezingo zuten gure kontra egin.

-Animaliak ez, baina pertsonak bai!Telebistan ikusi nuen!
Ezpata bat sartzen dizuete!

-Ondo da, sinisten dizut.

Orduan zezen taldeak erabaki zuen,lur azpian babesleku bat egitea eta hor inoiz ez zituzten aurkituko.

Hala bazan, edo ez bazan,sar dadila kalabazan... eta irten dadila zezen plazan!



LH 3-4

LIBE TERUELO ALONSO (San Andres ikastetxea)

POL

Kaixo, Ni Pol naiz eta nire bizitza kontatuko dizuet. Lehenik eta behin, nire burua aurkeztuko dut. Nire izena Pol da. Gozoki dendetan egoten diren poltsa txiki horietako bat naiz eta gozoki denda batean bizi naiz.

Gozoki dendan neNgoen eta ume bat hurbildu zitzaidan; indar handiarekin heldu eta umeak hartu egin ninduen. Nire barruan pipa poltsa bat sartu eta ordaintzera joan zen. Niri tontakeria haundia iruditu zitzaidan pipek euren poltsa dutelako eta ez zuelako merezi beste poltsa bat hartzea.

Umeak atera zuenean pipa paketea hartu eta ni lurrera bota ninduen. Haizeak lagunduta erreka zikin batera heldu nintzen. Hau nazka! Pentsatu nuen erreka zikin horretara jausi nintzenean.



Erreka plastikoz beteta zegoen botilak, poltsak, paketeak, baloi zaharrak... Errekan egun eta gau asko pasatu nituen eta azkenik itsasora heldu nintzen.

Itsasoan arrainak zeuden. Arrain askok plastikoa jaten zuten. Arrainetan fijatu ondoren dortoka bat ikusi nuen. Plastikoa batean sartzeko arriskua zuen, baina ikusi bezain laster bere aurretik pasatu eta ni geratu nintzen plastikoa barruan.

Orduan izurde bat hurbildu eta plastikotik atera ninduen. Flin izena zuela esan zidan. Laguntza eskaini zidan eta nik laguntza behar nuela esan nion.

Flinen gainean eseri eta irla batera eraman ninduen. Irla hori ez zen normala, plastikoz eginda zegoen!!! Flinek irlan utzi eta joan egin zen.

Momentu horretatik aurrera irla horretan bizi naiz. Eta beti pentsatzen dut zorientsuagoa izango nintzatekeela gizakiek zentzuz erabiltzen bazuten plastikoa.

Erabiltzen duzuna zentzuz erabili eta ez erosi ezertarako balio ez duten gauzak. Modu horretan kutsadura murrizten duzu.



LH 5-6

NAHIA JAUREGI (J.A. Mogel Ikastola)

ILE BAT

Duela pare bat egun Ramonaren burutik jauzitako ile bat naiz, berak zituen miloika ile horietako bat.

Ramona 11 urteko ume bat da. Bera mutil jaio zen baina orain neska izatea erabaki du, berak horrela nahiago duelako eta kitto. Ramon izena jarri zioten jaiotzean baina sexu aldaketaren ondorioz izena aldatu ere egin du, itxurarekin batera, Ramona deitzen da orain. Niri primeran iruditzen zait baina auzoko batzuk oraindik ez dute ulertzen kasua.

Ni betidanik egon naiz Ramonaren buruan itsasita, baina orain dela egun batzuk agur esateko momentua heldu zen. Ramona jantokian zegoen bitartean, ilea ukitu eta pasada horretan jauzi nintzen bere menuko plater batera, eta nora? Ba niri gutxien gustatzen zaidan janarira, purera. Zergaitik da gutxien gustatzen zaidana, ba pare bat aldiz Ramonak ilea purera sartu duelako eta nik, noski probatu egin nuen.



Purean egon nintzen, igerian, baina denbora gutxi pasa ondoren Angelinak, Ramonaren lagunak, garrasi erraldoi bat bota zuen ni purean ikusi ondoren:

- Sukaldariak! Ez ahal duzue ikusten garbitasun gehiago izan behar duzuela? Ramonaren purean ile bat dago! Kendu oraintxe bertan!

Angelina herriko alkatesaren alaba da, horregaitik denek egiten diote kasu.

Orduan ni eta pure osoa belarretara bota gintuzten eta gau bat pasa nuen belarretan, purearen usain txarrez inguratuta. Eskerrak hurrengo egunean umeak bertan futboleant jolasten zebiltzala eta Teoren baloian itsatsita gelditu nintzela. Orain Katalinaren katiuskan nago baloiarekin jolasten zegoelako eta ni katiuskan itsasi naiz. Ongi nago, purean egon nintzenekoarekin konparatuta, baina nahiago dut Ramonaren burua, nahiz eta batzutan zorriak izan.



DBH1-2

AIORA GOITANDIA ANITUA (Eibar BHI)

EUSKARA ERABILIKO NEUKE BETI

Kaixooo!!! Ama.

Euskaraz hitz egingo nuke beti...
Niri udaberrian eman zenidan euskara,
Udan euskara hitz egin nuen,
Orain euskara hitz egiten ari naiz
Eta nire neguan... euskaraz hitz egiten dut.

Euskara bihotzean daramat eta eramango dut
beti, ez dut inoiz ahaztuko.
Euskaraz kalean
Euskaraz etxean
Euskaraz eskolan
EUSKARAZ BETI!

Euskara munduan dagoen hizkuntza ederrena
da, izaten jarraituko du.
Euskaraz 365 egun.

Euskaraldia
Ahobizi
Belarri prest
Bihotz goxo

Nire bihotzean euskara
Leiho bat irekia daukat
Sartu nirekin euskaraz hitz egitera,
Goazen ondo pasatzera!

AUPA EUSKARA!

Kanpai hots gozoak
Kanpai hots garratzak
Denetik du orratzak
Baina gaur tori luzeak
Eta hartu motzak.
Euskarak eramango nau
Nik nahi dudana denbora eta lekura.

Behin, ama,
azokara eramanez
ninduzun
Euskara senti
nezan,
haren soinua
dasta nezan eta bere musikarekin,
dantza egiteko aukera eman zenidan,
jendearen artean, galdu, eta hegan ibili nintzen



Ama, zuk, esaten didazu
"Ixilik zaudenean politagoa zaude"
Baina euskara hitz egitean beti ondo zaude.

Hostoak agur Udazkenean,
Elurrak ere bai Udaberriko eguzkiari.
Etorri eta joan
Jaio eta hil-
Baina euskara beti gurean tinko eta bizi.

Maite ditudan gauzen artean
euskara dago.

Euskararen pentsatzean
Ostadarra etortzen zait burura.
Euskara ostadarra bezain
Edarra eta bitxia delako,
Kolore guztiak euskara dira.

Beno ama, espero dut euskarari buruz
pentsatzen eta sentitzen dudana zuri transmititu
izana, eta zure erantzunaren zain egongo naiz,
gustura irakurriko dut; zuk pentsatzen eta esaten
didazuna.

Maite zaitut ama,

Laster arte!!



DBH3-4

MADDI SARASUA (Eibar BHI)

EUSKARA ERABILIKO NEUKE BETI

Aitxitxa,

Gaurko honetan zure laguntzia biharrezkua dakat. Euskaria galtzeko arriskuan egon leikiala ikustiak nire onetik ateratzen nau, eta dana gure kulpiangaittik. Zenbat egun eta ordu pasa ditudun zuk eta bixok honetaz berbetan, eta egixa esan horregaittik idazten detsut gutun hau...

Gaur egun gehixenguen hizkuntza nagusixa erderia dala argi dau. Askotan batzuk kejau itten dira, euskaldunak ez dirala arpegira botatzian, baina ze uste dozu zuk, gau eta egun erderaz berba egitten daben norbaitek, euskeriari garrantzirik emoten ez detsan norbaitek, euskaldun sentitzeko eskubidia dakala? Neri dudak sortzen jataz buruan.

Jakina, izan ahal zara euskalduna eta hizkuntza bat baiño gehixaotan jardun, baina orduan, zerk egitten zaittu euskaldun? Euskaldun izateko zure hizkuntza eta ohiturak jarraitu bihar dituduzu, horren alde zeoze egiñ, eta behintzat galtzeko arriskuan dauala ikusitta, euskaraz berba egittia ezinbestekua da, ze diñozu?

Badakitt zuk gizarteak laguntzen ez deskuala uste dozula, telebista gehixena erderaz ikusten dogula, irakurtzen diran liburuen ehuneko gehixena erderaz dirala, guk jarraitzen ditudun artista, dirala abeslari, aktore edo dana danalakua, atzerrikuak edo ez, behintzat euskaldunak direla, hamen gehixen entzuten dan musikia eztala euskaraz... eta horren aurrian, zein da hartu bihar dogun erabakirik onena?



Seguru asko askotan ez nauzu sinisten kontu hauekin, baina nik euskaraz egingo neban beti. Hizkuntza oso politta iruitzen jata, eta nahiz eta gainontzeko herrialdeekin komunikatzeko oso desberdina dan, gure herrikua da, guk txikitxatik ikasi doguna, GURE AMA HIZKUNTZIA! Penia emoten desta galtzen dauala pentsatziak...

Gure kuadrilan be badakizu ez dala asko erabiltzen. Hasieran jolas moduan edo imitaziño moduan hasi zana, ohitura moduan amaittu dau. Bestiengandik ikusten doguna ikasten dogu, eta lehen esan detsuten moduan, guk jarraitzen ditudun pertsona askok eta askok ez dakixe euskaraz barbarik bez, orduan guk euren esaldixak kopixatzen, gure egunerokatasunian onartzen ditudugu, ohitura bihurtuz.

Igual galdera asko egin detsuraz, baina benetan esaten detsut zoratzen nabilela, noraezian nabil, ze egin jakin barik, eta bihar dotena zuk emoten ditudun aholku bat da, barre batez eta hitz egokixak esaten lasaitzen nauzun egun hoietakuak...

Laster juango naiz bixitxan, egixa esan gogua dakat.

Zure iloba maitxia, Martina



Sari-banaketa ekitaldia






IPURTERRE 2019



Lehiaketa

7 desberdintasunak

Bidali erantzunak
ekainak 5 baino lehen
...eta kitto! Euskara
Elkartea-
(Urkizu 11 . Eibar)



Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Oihan sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Oihan Martin

Zorionak Oihan! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!



sukal-saltsan

Txokolatezko trikuak

Urtebetetze festa baterako, askaria egiteko edo besterik gabe neska-mutikoekin sukaldean aritzeko ziur gaude triku berezi hauek arrakasta itzela izango dutela. Ordubete eta hamar minutu beharko dugu errezeta egiteko, eta beste 25 minutu labean.

Osagaiak:

- Gozogintzako txokolate beltza, 90 gramo
- Txokolatezko fideoak, 150 gramo
- Gurina, 140 gramo
- Almendra hautsa, 30 gramo
- Txokolate pralina, 90 gramo
- Irina, 250 gramo
- Azukre-hautsa, 70 gramo
- Arrautza bat



Nola egin:

- 1.- Ontzi batean gurina ondo bigundu. Ondoren, azukre-hautsa gehitu.
- 2.- Gero, almendra hautsa eta arrautza gehitu. Arrautza osorik.
- 3.- Dena ondo nahastuta dagoenean irina gehitu. Oso garrantzitsua da berriz ere guztia ondo nahastea.
- 4.- Lortzen duzun orearekin egin pilota bat eta film-paperean bildu. Hozkailuan sartu ordubetez, pixka bat gogortzeko.
- 5.- Orea hozkailutik atera eta pilota txikiak eginenez triku forma eman.
- 6.- Labean sartu: 25 minutu, 190 gradu.
- 7.- Bitartean txokolatea urtu Maria bainuan. Trikuak labetik atera eta pixka bat hozterakoan txokolatean sartu, sudurra ez beste alde erdia estaliz. Segidan, eta txokolatea gogortu aurretik, txokolatezko fideotan sartu eta lehortzen utzi.
- 8.- Pintzel baten laguntzarekin eta trikuen eztenak gogortzen dauden bitartean begitxoak eta sudur punta egin txokolatearekin.



Azenario pastela

Labea piztu 180 graduan eta molde bat olioztatu. Katilu handi batean olio, azukrea eta arrautzak irabiatu. Azenarioa, mahaspasak, intxaurrek eta laranja azal birrindua gehitu. Irina, bikarbonatoa, kanela eta intxaurrek muskatu hautsa iragazi osagai likidoen nahasketaren gainean. Mugimendu bilgarriekin nahastu, gehiegi mugitu gabe. Irin arrastorik ikusten ez duzunean nahasketa moldera pasatu eta 35 minutuz egosi (labana sartu eta, garbi ateratzen denean, eginda egongo da). Labetik atera eta moldearen barruan hozten utzi 10 minutuz. Moldetik atera eta hozten utzi. Gazta, azukre-hautsa eta laranja zukua nahastu nahasketa homogeneo bat lortu arte. Bota bizkotxoaren gainera eta espatula batekin bizkotxoaren goi parte estali.



Intxaurrekin sortzen

Gauza asko egin daitezke naturak eskaintzen dizkigun elementuekin. Intxaurrak jan ondoren oskolak gorde, baina irekitzean oskolaren erdia osorik mantentzen saiatu behar zarete. Pertsonak, animaliak, objektuak ... erabili zuen irudimena eta ea zer sortzen duzuen!

Materiala:

- Intxaurrak
- Gaztainak eta etxean ditugun objektu txikiak, txapak, kartulina, tela zatiak...
- Kola



Nola egin?

- 1.- Intxaurrak jan eta oskolak gorde. On egin!
- 2.- Mahai batean eskulana egiteko batutako materiala zabaldu, ea zer asmatzen duzuen.
- 3.- Txapak, begitxoak eta eskura izan ahal duzuen bestelako materialak pertsonak, xaguak eta amama mantangorriak egiteko erabili ditzakezue.
- 4.- Kola erabili elementuak lotzeko.
- 5.- Eta margoekin kolorea eman!




Komuneko paperekin artelanak

Eskulanak edo artelanak? Komuneko papera material polita da irudimena erabili eta sortzeko. Artelan antzeko eskulana egiteko, lehenengo tutuak eraztunetan moztu eta oinarrian jarri beharreko kartulina aukeratu. Moztutako zatiak ikusi eta formekin jolastu. Zuen esku gero kolarekin itsasi eta finkatzea edo sortzen jarraitzea.



bitxikeriak



Uranoko atmosferak “arrautz ustel” usaina dauka, bertan dagoen gas toxiko baten eraginez. Baina gizakia uranoko atmosferan sartu eta usaintzeko aukerarik izan gabe, berehala hilko litzateke, egiten duen hotzagatik.



Europako zuhaitzik zaharrena Italian dago. 1.230 urtetik gora dituen pinu honek hazten jarraitzen du gainera.



Ingalaterrako zisne guztiak bertako Erreginarenak dira.



Marmokak klonatu egin daitezke. Marmoka bat erditik mozten badugu bi erdiak birsortu eta bi marmoka berri jaioko dira.



Ba al zenekien 1830. hamarkadan ketchup-a beherakoa eta indigestioaren kontrako botika moduan saltzen zela?



Ba al zenekien barratxo energetikoek hamburgesa batek beste koipe dutela?



Kiwi txoriek ez dute hegan egiten eta ia-iaitsuak direnez usaimenaz baliatzen dira.



Gameluek koipea gordetzen dute euren konkorretan eta horri esker hainbat aste egon daitezke ur eta elikagairik probatu gabe.



Ba al zenekien begi urdindun katu zuriak gorra direla?




Ba al zenekien jatekoaz disfrutatzeke gure zentzu guztiak erabiltzen ditugula?



“Jalki” izeneko sumendiak laba isuri beharrean lokatza botatzen du.




Munduko mendikaterik luzeena ur azpian dago. 80.000 km luze da.



Poza 6 urtetik aurrera

Pozak badaki hegan, guk baino gorago! Hanka ugari ditu... edo bat gehiago! Ezkutatuko balitz, xomorro, pikaro... Zuk ikusi ez arren beti hortxe dago. Gainera, Iban Urizar musikariak konposatu du album ilustratuan oinarritutako kanta, liburuaren osagarri eta gozagarri.



Kandido 6 urtetik aurrera

Denak gara desberdinak. Premisa horrekin ageri zaigu Kandido: pertsona xelebrea, inguratzen duen munduaren aurrean den bezalako azaltzeko premia duena, onartua izateko premia duena



Mortina eta adiskide mamua 8 urtetik aurrera

Nor ote da azken egunetan Villa Dekadenten sartzen saiatu den mutiko mamu misteriotsua? Mortinak kosta ahala kosta jakin nahi du nor den, baina mamuak ez du bere izena ere gogoratzen! Horrela jarraituz gero, ezerezean desagertuko da, noiz eta orain, Villa Dekadenten Hildakoen Gabon Zahar Jai beldurgarria ospatzera doazenean.



Nork agintzen du? 8 urtetik aurrera

Mikelek eskola jazarpena jasaten du. Isilean eta ezkutuan darama bere sufrimendua. Baina hemendik oso urruti, urrutiko planeta batean, izan dute gertaeraren berri, eta ez dute ezer egin gabe geratzeko asmorik.



Onin eta altxorraren uhartea 10 urtetik aurrera

Onin izeneko neska bat uharte batera joan da eskolarekin. Bigarren egunean uhartera bueltatzen dira misterio bat aurkitzeko, baina Oninen lagunak galdu egingo dira eta ia egun guztia uhartean pasatuko dute. Lortuko al dute uhartetik irtetea?



Hamar! Aitonak oparia dakar! 10 urtetik aurrera

Opari bat egiten dugunean, gure barruko zatitxo bat ere oparitzen dugula esaten da. Oparietan gure izateko eraz, gure ametsez, gure nahiez ari gara. Paulok hamar urte beteko ditu, eta argi eta garbi adierazi die gurasoei urtebetetze egunerako zer nahi duen. Hala ere, eskatu ez duen opari batek, ate berri bat zabalduko dio. Eta zuri irakurle, irekiko al dizu aterik?



zu margolari